

Horbel eta Pausoka elkarteen eskutik Saharako haurrei eta komunikazio arazoak dituzten haurrei laguntzeko izango dira ORKLIDEA ekimenak banatuko dituen lehen 50.000€ak.

ORKLI Koop. Elkarteko Gizarte Kontseiluak sustatzen duen *Orklidea* ekimenak baditu lehen edizioako irabazleak. Euskal Herri mailan garatzen diren proiektuei zuzenduriko laguntza programa honek 50.000€ banatu ditu Horbel eta Pausoka elkarteen artean. Laguntza honi esker Saharako 12 haur etorriko dira Zeraingo Aterpetxera uda igarotzera Horbel elkartearen eskutik. Honez gain, Pausokak komunikazio arazoak dituzten haurrentzat komunikagailu berriak ekartzeko erabiliko du laguntza hau.

Elkarlanean sortutako ekinbideak, ilusioaren hazitik ernaldutako ideiak, kideen babesarekin goxatutako proiektuak zituen helburu Orklidea ekimenak. Hainbat hilabeteko lanaren ostean eta 25etik gora proiektu ezagutu eta aztertu ondoren, Orkliko kolektiboak aukeratu ditu bere irabazleak, pertsonen aukera berdintasuna, balioetan hezteak, Euskara... bezalako arloak balioan jarri.

HORBEL gizarte ekimeneko kooperatiba izan da A saileko irabazlea. Uda Bakean programaren barruan Goierri eskualdean azken urteetan Saharako haurrentzat harrera familiarik egon ez denez, Zeraingo Aterpetxean 12 haur hartzeko proiektua da martxan jarri dutena. Goierriko hainbat elkarteren laguntza ere izango dute, tartean Orkliko langileena, haur horientzat ekintzak antolatuz, uda ahaztezina izan dezaten.

Pausoka Elkarteak aldiz, 15.000€ko laguntza honekin komunikazio zailtasunak dituzten Gipuzkoako 6 bat haurrek komunikazio gaitasun digitala izan dezaten hainbat komunikagailu eskuratu eta txertatuko ditu beren familietan. Komunikagailu horiek modu pertsonalizatuan landu behar dira, haur bakoitzak dituen beharretara egokituz.

https://youtu.be/PN0c8kBZM_w?si=WpRwl_EPl2WEK-S

Eskertuko genuke gure ekimeneko irabazleak nortzuk izan diren zabaltzen lagunduko bazenigute, beharrezko ikusten baitugu Orklidea ekimenaren bidez proiektuak egin bihur daitezkeela ahal den jende gehienarengana iristea.

Harremanetarako telefonoak:

- Ruben Gonzalez. 650 293 065
- Alazne Gurrutxaga. 687 923 390

: orklidea@orkli.es